

EUSKO LEGEBILTZARRA. Autogobernuari buruzko batzorde berezian deklaratu zuen

Estatutua betetzeko «behar besteko leialtasunik eza» salatu du Mayorrek

Gernikako Estatutuaren «itun izaera» indartzea beharrezkotzat jo du PPko buruzagiak

Felix Iriarte | GASTEIZ

Jaime Mayor Oreja PPko talde parlamentarioaren presidenteari egokitu zaio Eusko Legebiltzarreko autogobernuaren batzordean azalpenak ematea. Egungo egoera aintzat hartuta, hogeituroko ibilbideari erreparatu zion, eta ondorioztatu du duela hogeituro baina egoera «hobeagoan» dagoela EAE, baina gauzak hobeto joan daitezkeen «behar besteko leialtasuna» falta dela.

Mayorren ikuspuntutik, izan ere, Estatutua ez betetzeko arrazoia ez da, Jaurlaritzako alderdiek behin eta berriro salatu dutenez, Madrilgo gobernuaren borondaterik eza, baizik eta falta diren transferentziak lortzea orain «konplexuagoa» dela.

«Falta dena askoz zailagoa da, horregatik ez dugu drama bat egin behar. Gainera, konplexuagoa da herri hau eraikitzeaz gainera tartean Europako erakuntza sartzen badugu», esan zuen Mayorrek. PPko buruzagiak, gainera, uste du orain 22 urte Estatutua idatzi zutenean egindakoari buruzko interpretazio ezberdinak egiten zituztela, eta horiek gaur ez direla argitu.

Autonomia ETA geldiarazteko tresna modura aurkeztu zuen Mayorrek, eta neurri batean helburua lortu delako poztu zen. Eta aurrera egiteko bide beretik jotzea proposatu du. Estatutua herriar guztien «bilgunea» izan zela pentsatzen du, eta itun izaera hori heldu zion, adierazteko, Estatutuak balio behar duela «itunak egiteko».



DAVID AGUILAR / EFE

Jaime Mayor Oreja atzo autogobernu batzordean egindako agerraldian. Entzuleen artean, Arnaldo Otegi.

Herria eratzea Estatutuaren meritua delakoan dago Mayor, eta, halaber, autodeterminazioa autonomiaren «aurkakoa» dela uste du. Autodeterminazioa «zaticatzailea» litzateke; eta autonomia, «integratzailea».

Mario Fernandez iritzia

Mario Fernandez Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde ohiak ere bere lekukotasuna eman zuen. Fernandezek uste du Estatutua «anemiarekin» dagoela,

eta itun izaera galdu egin duela. Estatuarekin egindako itun modura aurkeztu zuen Estatutua eta azken urteotan izan duen «atzerakada» salatu zuen. «Estatuko abokatuen jostailua izan da», deitoratu zuen.

EAE-KO ARARTEKOA. PPK sozialisten proposamena babestuko duela jakinarazi du Leopoldo Barredak

Agentziak | GASTEIZ

Jaurlaritzako alderdiek proposamen bat helarazi diote alderdi sozialistari Joaquín Okiñena abokatua EAEko Arartekoa izan dadin. PSE-EEK EAJ, EA eta IUren eskaera begi onez hartu badu ere, jakinarazi du asteburu honetan izango duten Biltzar Nagusiaren ostean hartuko dutela erabaki irmoa.

Jaurlaritzako alderdiek beste talderen baten laguntza behar dute Arartekoa izendatzeko. Legebiltzarreko araudiak dio legebiltzarkideen %60 bildu be-

Kongresuaren ostean erabakiko du PSE-EEK Okiñenari babesa emango dion

har duela Arartekoak, hau da 45 boto, eta EAJk, EAK eta IUk 36 legebiltzarkide besterik ez dute.

Sozialistek zuzendaritza berria hautatuko dute datorren asteburuan, eta hartuko duen lehen erabakietakoa izango da Okiñena EAEko Arartekoa izango den. Hala balitz, sozialistek haren ondokoa izendatzeko aukera izango lukete.

Sozialistek, bestalde, nahi dute negoziatio berean sartzea beste erakunde batzuetako kideen hautaketa. Legebiltzarrak EITBko zuzendaritza, Emakundeko zuzendaritza eta EITBko eta RTVEko Administrazio Kontseiluko kideak hautatuko ditu laster, eta horiek guztiak hitzartzea nahiko luke alderdi sozialistak.

Datorren astean, 27an, litekeena da Arartekoa eta beste erakundeetako ordezkariak hautatzeko plenoa egitea Legebiltzarrean. Hala ere, Leopoldo Barreda PPko ordezkariak adierazi duenez, erabakia gaur hartuko dute bozeramaileen batzordean.

PPk, bestalde, aurreratu du bat egingo duela PSEekin Arartekoa aukeratzeko bozketan. Barredak jakinarazi du PSEren laguntzari esker lortu zutela Ascension Pastor senatari izatea eta orain «mesedea» itzultzea dagokiela.

AMURRIO

EAJk Batasuna eta EAekin osatzen zuen gobernu taldea utzi egin du

Erredakzioa | GASTEIZ

EAJk utzi egin du Amurrioko (Araba) gobernu taldea. Jeltzaleek Batasunarekin eta EAekin batera gobernatzen zuten, alkatua EAKoa bada ere. Zin negoziatu jeltzaleek ohar bat sartu dute Udaleko erroldan gobernu taldea zergatik uzten duten azaltzeko. Oharrak dio kanpoan egonda ez dutela bat egingo Batasunarekin.

Alderdi jeltzaleak erabaki zuen Batasunarekin ez gobernatzea, eta ezker abertzalea gobernu taldean zegoen herrietan elkarrekin gobernatzeari utzi diote.

Amurrioren bezala, Bermeon eta Larrabetzun Batasunarekin gobernatzeari uko egin zion EAJk. Bermeon gobernu taldea utzi zuen eta EAK Batasunaren laguntzarekin gobernatzen du orain. Larrabetzun gobernu taldetik bota egin zuen EAJk Batasuna.

IDAHO

Idahoko ordezkari bat gonbidatzea aztertuko du Foru Parlamentuak

Erredakzioa | IRUÑEA

Idahoko Ordezkarien Ganberako ordezkari bat Nafarroara gonbidatzea eztabaidatuko du aurki Nafarroako Legebiltzarreko batzarrak.

Batasunak Idahoko ordezkari bat gonbidatzeko egin proposamena tramitera onartu zuen Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Mahaiak, atzo. Ganberako alderdietako inork ez zuen aurka bozkatu. Beraz, Legebiltzarreko batzarrean eztabaidatuko da ekaina baino lehen.

Batasuneko talde parlamentarioak egin eskaeran Idahoko Estatuak Euskal Herriaren autodeterminazioaren alde onartu berri duen adierazpenaren «garrantzia» azpimarratu du.